



KONTRATAZIO ORGANOAREN ESLEIPENARI BURUZKO EBAZPENA

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK DEITUTAKO LEHIAKETA, PROZEDURA IREKIAZ,
HONAKO KONTRATU HAU ESLEITZEKO: GIDATZE ERAGINKORRARI BURUZKO
IKASTAROAK EMATEKO KONTRATUA

ESPEDIENTE ZENB.: DIRTEC/14/009

PILAR URRUTICOCHEA URIARTE AND., ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN kontseilari-zuzendari nagusi den aldetik, GIDATZE ERAGINKORRARI BURUZKO IKASTAROAK EMATEKO KONTRATUA, prozedura irekiaz esleitzeko, deitutako lehiaketan,

ADIERAZTEN DU

Kontratazio batzordeak egindako proposamenarekin bat etorritz, eta 2015eko otsailaren 18 datarekin, ekonomikoki proposamen egokiena egin zuen esleipendunak, emandako hamar (10) egun balioduneko epearen barruan, legez eskatzen zaion dokumentazio guztia aurkeztu ondoren,

EBATZI DU

- I. GIDATZE ERAGINKORRARI BURUZKO IKASTAROAK zerbitzua xede duen kontratua **AUTOESCUELA SALAZAR, S.L.** elkarteari esleitzea, enpresa horrek **89,20 puntu** lortu baitzuen, B gutun-azalaren (iritzi bidez ebaluatu ahal diren irizpideak) eta C gutun-azalaren (formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak) guztizko puntuazio handiena eskuratuta.
- II. Esleipen honen berri ematea, SPKLTBren 151. artikuluan xedatutakoa betez, eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.
- III. Kontratuaren formalizazioa egitea hamabost (15) egun balioduneko epea igaro aurretik, esleitzeko ebazpen hau lizitatzailleek eta hautagaiek jasotzen duten egunetik kontatzen hasita.
- IV. Esleitzeko ebazpen honen kontra, borondatezko izaerarekin, gorako errekurtsio aurkeztu ahal izango da organo horren aurrean, hilabeteko epearen barruan, ebazpen honen berri ematen den egunaren biharamunean kontatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke dagozkien organo judizialen aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpen



EVE | Erte Vasco
de la Energía

hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, administrazio publikoen arautze juridikoaz eta prozedura administratibo erkidez diharduen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluen arabera eta administrazioarekiko auzi-bideen jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

Bilbon, 2015eko martxoaren 2an.

Pilar Urruticoechea Uriarte and.
EEEko kontseilari-zuzendari nagusia